Lurralde : invest. espac.	47	2024	p: 189-216	ISSN 0211-5891	ISSN 1697-3070 (e)

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN LURRALDE DIMENTSIOA ETA BERE EKARPENA LURRALDEAREN EKONOMIA POLITIKOARI EAEKO ESKUALDEETAN

PABLO ARRILLAGA MÁRQUEZ [1,2]
pablo.arrillaga@ehu.eus

ENEKOITZ ETXEZARRETA ETXARRI [1,2]
enekoitz.etxezarreta@ehu.eus

AITOR BENGOETXEA ALKORTA [1,3]
aitor.bengoetxea@ehu.eus

1- Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (GEZKI)
2- Ekonomia Aplikatua Saila (UPV/EHU)
3- Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saila (UPV/EHU)

Laburpena:

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren lurralde dimentsioa agerikoa da. Artikulu honetan, ESSaren lurralde dimentsio horretan sakonduko da, testuinguru globalizatu batean EAEko eskualdeen garapen sozioekonomikoan izan dezakeen eraginak aztertzeko. Horretarako lurraldearen ekonomia politikoaren bi ezaugarri nagusietan arreta jarriko da batez ere: Jarduera ekonomikoaren errotzeko gaitasunean eta tokiko gobernantza sistemetan integratzeko ereduen inguruan. Finean artikulu honek eskaintzen duena da azken urteetan EAEko ESSko eta tokiko garapeneko eragileek ildo honetan burutu dituzten eztabaida eta hausnarketa nagusiak jaso eta horien diskurtsoen analisi eguneratu bat.

Hitz gakoak: Ekonomia Sozial eta Solidarioa, lurraldea, tokiko garapena, lurraldearen ekonomia politikoa, Euskal Autonomia Erkidegoa

Abstract:

The Social and Solidarity Economy has a strong territorial connection. This article delves into this territorial link of the SSE to analyze the effects on the socioeconomic development of the Basque regions in a globalized context. To achieve this, attention will be paid to the following characteristics of the territorial political economy: The ability to root economic activity in the territory and its mode of integration in the local governance. In short, this article offers an updated analysis of the discourses, main debates and reflections carried out in recent years by local development agents and the Basque SSE.

Keywords: Social and Solidarity Economy, Territory, Local Development, Territorial political economy, Basque Country

Resumen:

La Economía Social y Solidaria tiene una fuerte vinculación territorial. En este artículo se profundiza en torno a este vínculo territorial de la ESS para analizar los efectos sobre el desarrollo socioeconómico de las comarcas vascas en un contexto globalizado. Para ello se prestará atención a las siguientes características de la economía política del territorio: Capacidad de arraigo de la actividad económica y su modo de integración en la gobernanza local. En definitiva, este artículo ofrece un análisis actualizado de los discursos y principales debates y reflexiones llevadas a cabo en los últimos años por los agentes de desarrollo local y la ESS vasca en este sentido.

Palabras clave: Economía Social y Solidaria, territorio, desarrollo local, economía política del territorio, C.A. de Euskadi

1. SARRERA:

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (aurrerantzean ESS) lurralde dimentsioa agerikoa dela baieztatu dezakegu huts egiteko beldur gabe; hala txertatua dago gure imajinario kolektiboan. Euskal Herriko txoko ezberdinetan zehar zabaltzen diren kooperatibak, lan-sozietateak, elkarteak, laneratze enpresak etab. ezarrita dauden tokian eta komunitatean errotuta dauden erakundeak bezala antzematen baitira. Pentsa, adibidez, zer nolako garrantzia izan duen kooperatibismo industrialak Euskal Herriko eskualde batzuen garapen sozioekonomikoan; erabaki zentroak lekuz aldatzea ekidin duten enpresa berreskuratuak; burujabetza energetikoa lortzeko sortzen ari diren komunitate energetikoak; tokiko ekoizleekin harreman zuzena duten kontsumo taldeak; lurra zaintzea helburu duten egitasmo agroekologikoak; ikasketa komunitariorako espazio gisa funtzionatzen duten liburu-denda kooperatiboak; auzo mailan funtzionatzen duten truke-sareak; edo tokiko merkataritza sustatzeko hainbat eremuetan sortu diren moneta sozialak besteak beste. Esperientzia hauek guztiek, eta beste askok, erakusten digute ESSaren lurralde dimentsioa agerikoa eta garrantzitsua dela hain zuzen ere.

Era berean, arlo akademikoan, ESSaren inguruko bibliografian zehar nabigatzen badugu, bere lurralde dimentsioa aztertu dituzten autore ezberdinak aurkituko ditugu (Mozas eta Bernal, 2006; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014; Matei, eta Dorobantu, 2015; Lasa eta Etxezarreta, 2020; Arrillaga, 2021a/b…). Hala ere, hutsune bat aurki dezakegu ESSak euskal ekonomiari egindako ekarpen kualitatiboak[1] lurraldearen ekonomia politikoaren ikuspegi batetik aztertu dituzten ikerketei dagokienez, eta bereziki, hutsune nabari bat euskal tokiko garapenak eraikitako egitura instituzional nagusienak (tokiko eta eskualdeko garapen agentziak) analisian barneratu duten ikerketei dagokienez.

Horregatik, artikulu honetan, ESSaren lurralde dimentsioan sakonduko dugu, testuinguru globalizatu batean EAEko eskualdeen garapen sozioekonomikoan izan dezakeen eraginak aztertzeko. Horretarako lurraldearen ekonomia politikoaren hurrengo ezaugarrietan arreta jarriko da batez ere: Jarduera ekonomikoaren errotzeko gaitasunean eta tokiko gobernantza sistemetan duen parte-hartzearen inguruan. Modu honetan, ESSak tokiko garapenari egiten dizkion ekarpenak aztertu nahi dira, gaiari buruzko hausnarketa eta eztabaida ezberdinak jasoz. Izan ere, azterketa hori burutzeko, euskal ESSko eta tokiko garapeneko 11 eragileen eta 3 adituen ekarpenak jaso dira. Finean artikulu honek eskaintzen duena da azken urteetan EAEko ESSko eta tokiko garapeneko eragileek ildo honetan burutu dituzten eztabaida eta hausnarketa nagusiak jaso eta horien diskurtsoen analisi eguneratu bat.

Gaiarekiko kokapena errazte aldera, tokiko garapenak zein ESSak EAEn eraiki duten egituraketa nagusia jasotzen duten irudiak aurkezten dira jarraian. Zehazki, EAEko garapen agentziak eta ESSko erakundeen sare ordezkatzaileak azaltzen dira.

1 Azterketa kuantitatiboa Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak (GEEB) argitaratu dituen lurralde dossierretan aurkitu daitezke. Hemen azken dossierra eskuragarri: https://oves-geeb.eus/app/uploads/2023/05/BIGARREN-LURRALDE-DOSSIERRA.pdf

Irudia 2: EAEko garapen agentziak

	Eskualdea/Udalerria	Garapen agentzia (sortze urtea)	
Araba	Gasteiz	Gasteizko udaleko promozio ekonomikorako saila (1986)	1
	Añanako kuadrilla	Añanako kuadrilla (1993)	2
	Amurrio	Amurrio Bidean (1999)	3
	Laudio	Laudioko udala (2011)	4
Bizkaia	Urduña	Urduñaederra (2002)	5
	Enkarterri	Enkarterri berri zerbitzuak (2013)	6
	Enkarterri	Enkartur (1999)	7
	Galdakao	Galdakao Udala (2003)	8
	Basauri-Etxebarri	Behargintza Basauri-Etxebarri (2002)	9
	Meatzaldea	Meatzaldeko Behargintza (1989)	10
	Bilbo	Bilbao Ekintza (1991)	11
	Barakaldo	Inguralde (1992)	12
	Sestao	Behargintza Sestao (2003)	13
	Getxo	Getxolan (1996)	14
	Leioa	Leioa Behargintza (2000)	15
	Erandio	Erandio Udala (2002)	16
	Txorierri	EGAZ Txorierri (2001)	17
	Uribe Kosta	Uribe Kostako Behargintza (2001)	18
	Mungialdea	Mungialdeko Behargintza (2001)	19
	Bermeo	Bermeo, Mundaka eta Sugarrietako Behargintza (2001)	20
	Gernika	Gernika Lanbide Ekimenak (1989)	21
	Durangaldea	Durangaldeko Behargintza (2000)	22
	Lea-Artibai	Leartibai Fundazioa (2002*)	23
Gipuzkoa	Debabarrena	Debegesa (1985)	24
	Urola Erdia	Iraurgi Berritzen (1988)	25
	Urola Kosta	Urola Kostako Udal Elkartea (1991)	26
	Donostia	Donostiako Udala (1988)	27
	Oarsoaldea	Oarsoaldea (1993)	28
	Bidasoa	Bidasoa Bizirik (1992)	29
	Beterri-Buruntza	Beterri-Buruntza Udalak (2017)	30
	Tolosaldea	Tolosaldea Garatzen (1994)	31
	Goierri	Goierri (1993)	32
	Urola Garaia	UGGASA (1994)	33
	Debagoiena	Debagoienako Mankomunitatea (1993)	34



*2002an sortutako Lea-Artibaiko Garapen Agentzia. 2022tik Leartibai Fundazioaren parte da

Lehenengo garaian sortuak Bigarren garaian sortuak Hirugarren garaian sortuak Laugarren garaian sortuak

Iturria: Egileek egina.

Irudia 2: EAEko ekonomia sozial eta solidarioaren sare egituraketa

EGES irabazi asmorik gabeko elkarte baten izaera juridikoa daukan sare bat da. Topagune bat sortzeko nahiak gidatzen du bere lana, lankidetzarako espazio integratzaile bat eskaini ahal izateko. Bertan, eragileek Gizarte Ekonomiako ekintzak ezlabaldatu eta bultzatzeko aukera izango dute Euskadiko erakunde publiko eta pribatuetan, bai ekonomikoetan, instituzionaletan zein sozialetan, bai eta euskal gizartea sentsibilizatzeko aukera ere (www.eges.eus).

	Kooperatibak	Enplegu zentro bereziak	Lan sozietateak	Laneratze enpresak	Ekonomia Solidarioa	Ekonomia Sozial Eraldatzailea	Bizkaiko Kooperatiba Txikiak
Printzipio mugatzaileak	- Printzipio kooperatiboak (ICA, 1995)	- Mozkin asmorik gabeko enplegu zentro bereziak. - Ergaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatu.	- Sozietateen kapital sozialaren gehiengoa, kontratu mugagabea duten langileena da. - Bazkide bat bera ere ezin da kapitalaren herena baino gehiago izan	- Mozkin asmorik gabeko laneratze enpresak. - Bazterketa sozialean edo baztertuak izateko arriskuan dauden langabeei lagundu, gizarteratu eta laneratzea.	- Ekonomia solidarioaren gutunean bildutako printzipioak (RIEAS, 2011).	- Olatukoop-eko (2019) oinarri irekiak	- Printzipio kooperatiboak (ICA, 1995) - Bizkaiko kooperatiba txikia izatea (2 eta 10 bazkideen artean izatea)
EAEko marko juridiko orokorra	- 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.	- 168/2019 Dekretua, urriaren 29koa, EAEn ezgaitasuna duten pertsonen enpleguarekin zerikusia duten programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien euskal erregistroa arautzen dituena.	- 44/2015 Legea, urriaren 14koa, Lan Sozietateei eta Partaidetza Sozietateei buruzkoa.	- 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena.			- 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.
ESSko sareak	KONFEKOOP	EHLABE	aSLE		reas euskadi	OLATUKOOP	GORAIZ

Iturria: Egileek egina.

2. LURRALDEAREN EKONOMIA POLITIKOA, TOKIKO GARAPENA ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA:

2.1 Lurralderen ekonomia politikoaren testuingurua:

Kapitalismoaren historian zehar ortodoxia ekonomikoaren ordezkari gisa garatu izan diren eskola ekonomiko ezberdinek ez diote, orokorrean, estatuz azpiko eremuei (erregioak, eskualdeak, udalerriak…) garrantzi gehiegirik aitortu. Ekonomialari klasikoetatik hasita eta XX. mendeko monetaristetara arte egindako ikasketa ekonomiko ezberdinek, estatu(-nazioa) oinarrizko analisi unitate gisa kontsideratu baitute. Estatuaren eremua, ekoizpen, merkataritza eta kontsumo harremanen edukiontzi koherenteena bezala ulertua izan den heinean. Eta nazioarteko merkataritzari begiratu izan diotenean, estatu itxi eta mugatuen arteko merkataritza-harremanen eredu gisa aztertu izan ohi da; David Ricardoren abantaila konparatiboan oinarrituta (Brenner, 1999a).

Hala ere, XX. mendeko azken herenean areagotzen den prozesu globalizatzaileak estatuz azpiko eremuen inguruko arreta piztu du (Brenner, 1999; 2004; Benko eta Lipietz, 2000; Zurbano, 2005…). Lehen begiratu batean iruditu dezake testuinguru honetan lurraldeen gaitasuna murriztu izan dela erregulazio ekonomikoko eginkizunetarako. Hau da, globalizazioa ekoizpena, nazioarteko merkataritza eta finantza-merkatuak esparru ekonomiko bakar batean integratzeko prozesu-multzo gisa kontsideratzen badugu, non kapital-, informazio-, salgai- eta kultura-fluxuek gero eta osagai globalagoa duten, ondorioztatu genezake lurraldeek gero eta gaitasun txikiagoa izango dutela eragiten dieten prozesu sozioekonomikoen gain esku-hartzeko.

Alabaina, kapitalismoa kontraesankorra da, eta, alde batetik, hedapenaren eta mugikortasun mugagabearen logika jarraitzen du, eta bestetik, leku jakin batzuetan finkatzeko beharrarekin aurkitzen da (Brenner, 1999b). Beste era batera esanda, nahiz eta idealki kapitala etengabe mugituko litzatekeen metaketa baldintza onuragarriagoak eskaintzen dizkioten lekuetarantz (lan-kostu txikiagoa, banaketa-sareetarako sarbide hobea, presio fiskal txikiagoa, etab.), azpiegiturak eta bestelako elementu instituzional finkoak behar ditu erreproduzitzen jarraitzeko (egitura instituzionala, *know how*, lan-merkatu espezializatua, garapen teknologikoa, garraio-kostuak, berrikuntzaren eta ezagutzaren transferentziaren sistemak, etab.) (Brenner, 1999a/b; González, 2005).

Hortaz, kapitalaren dinamikek lurraldean eragiten dute, eta beraz, lurraldea ez da espazio neutrala. Kapital-metaketaren prozesu globalean eskualdeak, hiri-eskualdeak edo hiriak eskala esanguratsuak bezala birkonfiguratu dira; lehia-abantailak eta kapitalaren erreprodukziorako baldintza egokiak sortzeko eremu estrategiko gisa konfiguratu baitira (Brenner, 1999a/b; 2004; Zurbano, 2005). Izan ere, Brennerrek (2009:27) adierazten duen moduan, nazioarteko kapital-, salgai- edo informazio-fluxuen azelerazioa, nazioarteko estrategia korporatiboak, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) garapena, merkatu libreko politikak edo inperialismo kulturala bezalako gertakizunak eman diren arren,

lurraldeek, beren garrantziari eusten diote, “kapitalismo moderno berantiarra lekuen eta lurraldeen arteko desberdintasunak areagotzean oinarritzen baita”.

Honek, aldi berean eskualdeentzako industria-politika berri bat ekarri du. Izan ere, nazioartean lehiakorrak izateko asmoz, inbertsioa erakartzeko eta ezagutza sortu eta mantentzeko politika publikoak nagusitu dira. Horretarako, batzuetan pizgarri fiskalak, enpresentzako laguntzak eta azpiegitura berrien eraikuntza sustatu dira, eta beste batzuetan, eskualdeek faktore instituzionalak sendotzea eta tokiko enpresen eta agente teknologikoen gaitasunak hobetzeko ingurune berritzaileak garatzea helburu duten estrategia endogenoak aplikatu dira (Pike et. al., 2016).

Lurraldeen arteko norgehiagoka honen ondorioz, lanaren nazioarteko banaketa berri bat sortu da (Ikusi, Dicken, 2011). Lurralde batzuk baliabide bereizgarrien kontrolean espezializatu dira, beste batzuk finantza-fluxuen kontrolean, beste batzuk izaera desberdineko industrietan eta beste batzuk baliabide naturalen eta soberako lan-indarraren hornitzaile gisa geratu dira (Harvey, 2014). Hau da, kapitala erakartzen lortzen ez duten lurraldeak edo ekoizpen-faktoreak (berrikuntza, garapen teknologikoa, produkzio-kostu handiagoak, presio fiskal handiagoa edo ekoizpenaren antolaketa ez-eraginkorra) eskuratzeko testuinguru zail batean lehiakor irautea lortzen ez duten lurraldeak, debaluazio-krisian eta/edo kapital lokalizatuaren suntsipenean erortzen dira. Horrela, lurralde irabazleak eta galtzaileak sortu dira maila globalean (Benko eta Lipietz, 2000).

Era berean, lurraldearen ekonomia politiko honek baditu barne inplikazioak ere. Izan ere, zenbait ikerketek erakusten dutenez, garapen teknologiko altuko lurraldeek kapital-metaketa erakartzeko gaitasuna erakusten duten arren, barne mailako disparekotasunak ez dituzte murriztu, are okerrago, disparekotasun eta bazterketa sozial maila altua erakusten duten lurraldeak izan ohi dira (Lee, 2011; Lee eta Rodriguez-Pose, 2013).

2.2 Tokiko garapena:

Tokiko garapenak XX. mendearen azken herenetik aurrera arreta pizten hasten duen korpus teoriko zabala osatzen du. Hainbat ikuspegi eta korronte teorikotatik abiatuta (Pike et. al., 2016; 2017), lurraldeen garapen sozioekonomikoa azaltzeko tresnak eskaini, eta, aldi berean, lurraldeetatik abiatutako garapen-proposamen bat egitea bilatzen duena (Pike et al., 2016).

Orokorrean, tokiko garapenari egindako hurbilketa teorikoek lurraldearen elementu instituzionalen (Amin eta Thirf, 1994; Rodriguez-Pose, 2013), ebolutiboen (Martin eta Sunley, 2006; Boschma eta Frenken, 2009; 2018) eta erregulatzaileen (Brenner, 1999b; MacLeod, 2001; Brenner, 2004) garrantziari erreparatu diote lurraldeen garapena azaltzeko. Hurbilketa teoriko horien emaitza lurralde-berrikuntzako ereduak dira (ikusi, Moulaert eta Sekia, 2003), tokiko eragileek bultzatuak, lurraldeen oparotasun ekonomikoa, gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea bilatzen dutenak (Pike et al., 2016).

Tokiko garapenaren hastapenak, 80ko hamarkadan automatizazioak, deslokalizazioak eta lurralde-lehiakortasun hazkorrak ekarri zituzten tokiko ekoizpen-krisiei eta langabeziari erantzuteko sortu ziren lurralde-estrategia sozioekonomikoetan aurkitzen ditugu. Izan ere, globalizazioak zekarren botere politikoaren berreskalatzeak eta estatuz azpiko eskalen indartzeak, lurraldeetan egitura instituzionalak eta erregulatorioak garatzea ahalbidetu zituen (Zurbano, 2005).

Horrenbestez, globalizazioaren dinamiken aurrean, eta hauek lurraldeetan eragiten duten ondorioen aurrean, tokiko eragileen erantzuna bezala kontsideratu daiteke tokiko garapena (Vázquez Barquero, 2000; Pike et. al., 2016). Hau da, lurraldeak prozesu globalen ondorioak jasaten duten objektu izatetik, erregulazio subjektu aktibo gisa agertzen dira globalizazioan (Zurbano, 2005), euren egitasmo sozioekonomiko propioak definitu eta gidatzeko gaitasunarekin.

Gaur egun, tokiko garapena ekonomia erreala ber-aktibatzeko tresna garrantzitsua da politika makroekonomikoekin batera (Vázquez-Barquero, 2009). Alabaina, tokiko garapenak baditu ere beste erronka garaikide batzuk. Pike et. al. (2017)-entzat, tokiko garapenaren inguruko gaur egungo eztabaida eta erronka nagusiak lurraldeen barneko eta haien arteko desberdintasuna, kausalitate exogenoak eta endogenoak garapenean duten elkarrekintza, eta egungo arazo ekonomiko, sozial eta naturalei erantzuteko faktoreak analisi eta politiketan barneratzeko beharra lirateke.

2.3 Ekonomia Sozial eta Solidarioaren lurralde dimentsioa:

ESSko antolakundeek beste enpresek baino errotze handiagoa erakutsi ohi dute sortzen diren lurraldearekiko (Mozas eta Bernal, 2006; Matei, eta Dorobantu, 2015). Izan ere, jabego egituraren, erabakitze mekanismoen eta erakundearen helburuaren inguruan dituzten berezko ezaugarri ezberdinek ahalbidetzen dute errotze handiago hau. Hurrengo lerroetan ezaugarri hauek guztiak laburbiltzen saiatuko gara.

ESSko erakundeetan, bazkideak dira (langileak, erabiltzaileak...) ekoizpen-, kontsumo-, banaketa-, aurrezki- edo finantzaketa-baliabideen jabeak eta demokratikoki kudeatzen dutenak. Hots, erakunde hauetan onuradun kategoria ez da, inolaz ere, interes pribatu maximizatzailea duten inbertitzaile kapitalistez osatuta egongo; langileak edo erabiltzaileak erakundearen jabeak direnez, interes mutuala eta/edo interes orokorra dira antolakundea gidatzen dutenak (Gui, 1991). Gainera, erabakiak edo mozkinen banaketa bezalako alderdiak ez dira egindako kapital ekarpenarekin lotzen, baizik eta parametro demokratikoei jarraitzen diete; are gehiago, kasu batzuetan mozkinen banaketa ez dago baimenduta. Modu honetan, erakundearen balioa ez dago gainbalioa lortzearen mende, baizik eta bazkideen edo komunitateen beharrak asetzearen mende (Monzón, 2006).

ESSko egitasmo bat lurralde bateko pertsona talde baten ekimenez abian jartzen da (Mozas eta Bernal, 2006; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014); hauek, beraien beharrizan propioak edo komunitatearenak asetzeko elkartzen direlarik. Hau da, ekimen kolektiboaren bitartez,

autonomiaz eta ekimenaren onuradunen borondatez sortzen diren egitasmoak dira (Monzón eta Chaves, 2012). Eta beraz, lurraldeari eta haren errealitateari erabat lotuta egoteaz gain, erraztasun handiagoa erakusten dute beren jarduera ekonomikoa tokiko beharretara egokitzeko (Gómez eta Fernández, 2008; Juste, Gómez eta Fernández, 2011). Gainera, onuradunek bazkide-langile eta bazkide-erabiltzaile kondizioa izan dezaketenez eskaintza eta eskariaren eraikuntza bateratua egitea ahalbidetzen du. Hau da, ESSko antolakundeak inplikazio ezberdina duten eragileetatik datozen eskaeretara irekita daude; hauek, langileak, erabiltzaileak, boluntarioak, beste erakunde batzuetako ordezkariak, familiak, profesionalak, agintari publikoak, etab. izan daitezkeelarik (Laville eta Nyssens, 2000).

Ildoari jarraituz, ESSko antolakundeak ekoizpen bitartekoak sozializatuz eta tokiko baliabideak, inbertsioa eta gaitasunak mobilizatuz sortzen dira. Bazkidego-onuradunak bertakoa izanik eta interes pribatua duen kanpo inbertitzailerik ez dagoenez, antolakundea eta lurraldea formalki lotzen dira lekualdatze edo itxiera arriskua murriztuz (Mozas eta Bernal, 2006). Era berean, ezaugarri honek, kalitatezko enplegu egonkorragoa sortzea eragiten du (Monzón eta Chaves, 2012), eta, krisi-garaian, enpleguaren defentsa handiagoa erakusten du langileak direlako horren gaineko erabakiak hartzen dituztenak (Fakhfakh et. al., 2012).

Bestalde, lurraldean sortzen duen jarduera ekonomikoaren onura soziala errentagarritasun irizpideen gainetik jartzen du. Hots, erabilera-balioa truke-balioaren gainetik ezartzen da behar konkretuei erantzuteko sortu den egitasmoa delako eta ez kapitala metatzeko helburuarekin (Arrillaga, 2021a). Horrela, enpresa kapitalistak errentagarritasun faltagatik baztertzen dituzten sektore eta lurraldeetara iritsi daiteke ESSa. Horregatik, besteen artean, despopulatutako lurraldeetan biztanleria finkatu eta bizia sortu dezake (Valiente, 2019).

Horrez gain, bere funtzionamendu demokratikoa dela eta, errentaren eta aberastasunaren banaketa bidezkoagoa egiten du, kohesio sozial eta ekonomiko handiagoa sustatuz (Monzón eta Chaves, 2012). Gainera, sortutako aberastasuna lurraldean mantentzea eragiten du, jabetza kapitalistako egiturekin gerta daitezkeen kapital-ihesa saihestuz.

Krisi garaietan egonkortasun ekonomikoa sortzen du enpresa kapitalistek baino erresilientzia handiagoa erakusten baitu (Birchall eta Ketilson, 2009). Hainbat arrazoirengatik: langileek enpresa norberarena dela sentitzen dutelako, lana irabazien gainetik lehenesten delako, beren jarduera ez dutelako ezartzen errentagarritasun-irizpideak lehenetsiz, elkarren artean lankidetzan aritzeko joera dutelako edo baliabideak hibridatu ditzaketelako merkatu-, ez merkatu- edo/eta ez diruzko-ekonomietatik (merkatu trukea, administrazio publikoa, lan boluntarioa, auzolana, moneta sozialak, denbora bankuak etab.).

ESSko erakundeak lankidetzan aritzen dira (ICA, 1995), sarean lan egiten dute edo proiektu partekatuak onartzen dituzte; beraz, lurraldearen sare instuzionalean hobeto txertatzeko joera daukate (enpresa-sareak, garapen-estrategia, zientzia- eta berrikuntza-sistemak, prestakuntza-zentroak, unibertsitateak, administrazio publikoa, gizarte zibila, etab.) (Mozas eta Bernal, 2006). Era berean, lankidetzan elkarrekikotasunean oinarritutako kapital soziala

eraikitzen lagundu dezake (Laville eta Jané, 2009). Gainera, parte-hartzea eta demokrazia ekonomikoa sustatzen ditu lurraldeetan.

Etengabeko prestakuntza eta berrikuntza sustatzen ditu (ICA, 1995). Gainera, azken horren hedapena eta transferentzia errazten du. Izan ere, oso ohikoa da berrikuntzen transferentziarako antolaketa-egiturek elkarteen edo fundazioen forma hartzea (Mozas eta Bernal, 2006). Bai berrikuntza teknologikoei dagokienez eta baita ere berrikuntza sozialei dagokienez.

Erakundeen jarduera ekonomikoagatik sortu daitezkeen soberakin ekonomikoak erakundea beraren jardueran ber-inbertitu edo/eta lurraldearen garapen sozial, kultural edo komunitariora bideratzen dira (Monzón eta Chaves, 2012). Gainera, lotura handia du lurraldeko herri-mugimenduekin eta haien aldarrikapenekin. Ildo honetan, ohikoa da garapen jasangarriago baterako egin ditzakeen ekarpenak azpimarratzea (Villalba-Eguiluz et. al., 2020).

Azkenik, izaera kapitalistako produkzio-, kontsumo-, banaketa-, finantzaketa-, etxebizitza-harremanak etab. eraldatzen ditu, pertsonak prozesu ekonomikoaren erdigunean jarriz. Bizitzarako ezinbestekoak diren sektore ezberdinen gaineko kontrol herritarra ahalbidetuz eta lurraldeetan burujabetza kuotak irabaziz (Arrillaga, 2021a/b; Arrillaga eta Etxezarreta, 2022).

3. ANALISIA: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN EKARPENA EUSKAL TOKIKO GARAPENARI:

3.1 Ohar metodologikoak

Atal honetan, gaur egungo testuinguruan euskal ESSak EAEko eskualdeen garapen sozioekonomikoan izan dezakeen eragina aztertuko da. Horretarako, euskal ESSko eta tokiko garapeneko 11 eragileen eta 3 adituen ekarpenak jaso dira elkarrizketa erdiegituratuen bitartez[2].

Burututako elkarrizketetan euskal ESSko 5 sareen iritzi eta hausnarketak jaso ziren (Konfekoop, ASLE, EHLABE; REAS Euskadi eta Olatukoop). Era berean, gaian aurreratuen

2 Testuan zehar agertuko diren elkarrizketatuen hausnarketen eta iritzien anonimotasuna bermatzeko, elkarrizketatu bakoitza kodifikatu egin da (E1-etik E14-ra).

dauden 6 garapen agentzia[3] ere elkarrizketatu ziren (Goieki, Bilbao Ekintza, Getxolan, Beterri-Buruntzako Udalak, Azaro Fundazioa eta Debagoiena 2030). Azkenik, beste 3 elkarrizketa burutu ziren gaian adituak diren pertsonei.

Elkarrizketa erdiegituratuen bitartez, elkarrizketatuak protagonista aktiboak bihurtzen dira ikerketaren garapenean. Izan ere, ikerketa-tresna zurrunagoekin alderatuta, elkarrizketa erdiegituratu batean elkarrizketatu bakoitzak berarentzako garrantzi handiena duten ezaugarri, hausnarketa edo eztabaidetan arreta handiagoa jarri dezake (Longhurst, 2003). Eta beraz, aurrez definitutako gidoi baten gainean lan egiten den arren, elkarrizketatuek askatasuna dute beraiek identifikatzen dituzten elementu gakoetan sakontzeko.

Jarraian aurkezten den analisian, ESSak jarduera ekonomikoaren errotzeko duen gaitasunean eta tokiko gobernantza sistemetan duen parte-hartzearen inguruan sakonduko da. Izan ere, biak oinarrizko elementuak dira tokiko garapenerako eta aldi berean, ikusiko dugun moduan, ESSak zeresan bereizgarria dauka alderdi hauetan.

3.2 ESSa eta jarduera ekonomikoaren errotzea EAEko eskualdeetan

Elkarrizketatu guztiek adierazi dute modu esplizituan ESSko antolakundeek bestelako enpresak baino errotze handiagoa erakusten dutela sortzen diren lurraldeekiko. Hala ere, hau ez da beti modu berdinean ulertzen, eta, gutxienez, bi zentzu ezberdin (baina bateragarriak) aurkitu daitezke elkarrizketatuen diskurtsoetan. Alde batetik, errotzea ESSko antolakundeen ezaugarri juridiko-formalekin lotzen dutenak leudeke. Hauek, batez ere, antolakunde hauen jabego egiturari eta onuradunen bazkide-langile edo bazkide-erabiltzailearen izaerari begiratzen diote antolakundearen errotzea azaltzeko. Beste aldetik, antolakundearen helburuarekin lotzen dutenak daude. Hauek, ESSko antolakundeak tokiko beharrekin eta lurraldearen garapen komunitarioarekin lerratzen diren antolakundeak direla adierazten dute (kalitatezko enplegua sortzera, kontsumo ondasunak edo zerbitzuak eskaintzera, finantza beharrak erantzutera, ekimen kulturalak sustatzera, bazterketa soziala borrokatzera etab. bideratzen diren egitasmoak baitira).

Hurrengo pasarteetan bi zentzu hauek sumatu daitezke:

3 Artikulua sinatzen dugun egileok badakigu Azaro Fundazioa eta Debagoiena 2030 ez direla zehazki garapen agentziak, edo ez, behintzat, beste eskualdeetakoak bezalakoak. Egia da, Azaro Fundazioaren kasuan, Leartibai Fundazioa sortu zenetik Garapenen elkartu dela beste garapen agentziekin batera. Alabaina, bere jatorria bulkada kooperatibo bati zor dio eta ez ekimen publikoari. Debagoiena 2030ren kasuan aldiz, Debagoieneko komunitateak (Arrasateko koooperatibismoaren eta eskualdeko udal batzuen babesarekin) bultzatutako egitasmoa da, eskualdean identifikatu dituzten erronkei erantzutea ahalbidetuko duten proiektu kooperatibo-komunitarioak sustatzeko asmoa duena. Dena den, euren eskualdeetako garapen prozesuaren dinamizazioan duten paperagatik eta ESSarekiko duten hurbiltasunagatik, ikerketa honetan eskualde garapenerako eragile nagusi gisa kontsideratu ditugu garapen agentziekin batera, nahiz eta ohiko garapen agentziek ez dituzten motibazio eta eginkizun batzuk ere dituzten.

> *"Si la mayoría del capital está en manos de personas que trabajan aquí, lógicamente el proyecto va a estar afincado allí donde se está desarrollando la actividad, con sede social en nuestro territorio, con personas que tienen un vínculo muy fuerte con la localidad donde viven" (Elkarrizketatua 10)*

> *"El hecho de que la propiedad de la empresa, los resultados de la empresa y la gestión de la empresa estén vinculados con las propias personas que trabajan en la empresa, pues sin ninguna duda esto te está dando un input importante en cuanto a la localización de la empresa" (E7)*

> *"Ez dira ikuspegi ekonomiko eta errentagarritasun batetik sortzen bakarrik, baizik eta beste arazo eta behar batzuei erantzun emateko. Eta erantzun horiek oso lotuta daude eskualdeko errealitatearekin eta eskualdeko jendeak tira egiten du normalean horrelako proiektuetatik" (E1).*

> *"Yo creo que todas las respuestas de la Economía Social y Solidaria tienen que ver con el territorio (…) ese nudo que tienes con el espacio en el que naces, y en el que habitas y para el que estás generando tus productos, servicios y resolviendo sus necesidades." (E8)*

Dena den, errotzeaz ari garenean, jarduera ekonomikoaren lokalizazioaz baino dimentsio gehiago barneratu behar ditugu analisian. Zentzu honetan, elkarrizketatuek beste hainbat aspektu azpimarratzen dituzte euskal eskualdeen ekonomiarako garrantzitsuak izan daitezkeenak. Hala nola, tokiko enpleguaren defentsa, erabaki zentroen mantentzea, aberastasuna atxikitzeko gaitasuna, sortutako aberastasunaren banaketa edo lurralde oreka.

Elkarrizketatuek adierazten dutenez, ESSak enpleguaren defentsa handiagoa erakusten du enpresa kapitalistek baino. Aurrekoan bezala, kasu honetan ere antzeman daitezke aipatzen genituen bi zentzuak. Hots, enpleguaren defentsa ESSaren ezaugarri juridiko-formalekin lotzen dutenak eta egitasmoaren helburuarekin lotzen dutenak. Lehenengoen ustez, enpleguaren defentsa ematen da bazkide-langileek eskumena dutelako euren lanaren inguruko erabakiak hartzeko; adibidez, krisi garaietan edo deslokalizazio arriskuaren aurrean. Aldiz, bigarrengoek, batez ere, bazterketa egoeran dauden pertsonei ESSak ematen dien aukeretan zentratzen dira:

> *"En las entidades de Economía Social, el principio decisión es distinto. No es en base al capital, sino que está vinculado al principio democrático. (…) Tú vas a decir a la empresa, pongamos de 100 trabajadores de Elgoibar… 'Oye, que vamos a trasladar la producción a Tánger, y lo vamos a votar en asamblea' ¿Que te van a decir los trabajadores? Evidentemente te van a decir que no, porque se están jugando su puesto de trabajo. Si esa misma empresa, en vez de ser cooperativa de trabajo asociado, fuera una Sociedad Anónima, el empresario de turno diría: Bueno lo siento, vosotros vais al paro y yo la traslado a otro sitio y yo continúo ganando dinero porque me va a resultar mucho más barato. Es decir, la propia forma jurídica (…)*

hace que las entidades de Economía Social estén más ancladas al territorio. Y esto por el momento es una mayor garantía (…) frente a los procesos de deslocalización empresarial." (E13)

"Son empresas que están ubicadas aquí y que su sentido está en mantener el empleo, empleo de calidad, estar arraigadas al territorio, no deslocalizarse, que es uno de los grandes problemas de las actuales empresas, porque los propietarios son los trabajadores y no tienen ningún interés en deslocalizarse" (E12)

"(…). Ze uste dugu, kooperatiba bada errotu egiten dala bertan eskualdean, eta gero badagozenean krisi garaiak eta, ba hobeto irauten dotzela krisi garai horreri ba deslokalizatzeko edo ixteko erabakiak zailagoak izaten dira hartzea." (E2)

"Iruditzen zait Ekonomia Sozial eta Solidarioa hain errez ez duten edo zailtasun gehien dituzten profil edo arloei laguntzeko aukera bat izan litekeela." (E1)

"Es un modelo de generación de empleo, y no cualquier empleo, empleo de calidad y estable. (…) Creo que hacemos una apuesta por la diversidad. (…) Creo que las empresas de Economía Social tienen mucha mayor sensibilidad por la incorporación de personas con dificultad de acceso al empleo (…) La mayor sociedad laboral que hay en Euskadi es Katea Legaia, que es un centro especial de empleo cuyo 90% de la plantilla, personas con discapacidad, son socios trabajadores o socias trabajadoras." (E10)

Enpleguaren defentsaren aldeko jarrera hau krisi garaietan antzeman daiteke ere. Adibidez, 2008ko krisiaren ostean, euskal ESSko antolakundeek trataera hobea eman zioten enpleguari enpresa kapitalistek baino; kuantitatiboki zein kualitatiboki (Bengoetxea, 2016). Izan ere, ohikoa da enpresa kapitalista bat krisian sartzen denean, kostuak murrizteko lehenengo neurria kaleratzeak izatea. Aldiz, ESSak bestelako doikuntzak egiten ditu bazkideen lanpostuak galdu ez daitezen (Bretos eta Morandeira, 2016).

Era berean, euskal ekonomiak duen beste erronka garaikideetako bati erantzion diezaioke ESSak: Erabaki zentroen galerari, alegia. Hau da, ekoizpena bera lekualdatu gabe, atzerriko enpresa edo funtsek bertako enpresen gaineko erabakitze gaitasuna erosten dutenean. Egoera hau bereiziki antzemangarria da enpresa familiar edo ETE-etan non errelebo faltagatik, itxi edo atzerriko enpresa edo funtsengatik erosiak izaten ari diren. Kasu honetan ere, ESSaren jabego egiturak ezinezkoa bihurtzen ditu mota honetako operazioak.

"Yo creo que la Economía Social da respuesta a muchos de los problemas que tenemos en estos momentos. (…) El enraizamiento territorial, la localización de los proyectos, el mantenimiento de los centros de decisión en Euskadi… (…) Si la mayoría del capital está en manos de personas que trabajan aquí, lógicamente el proyecto va a estar afincado allí donde se está desarrollando la actividad, con sede social en nuestro territorio. (…) En un momento en el que tenemos a un montón de

> *fondos de inversión y grandes multinacionales comprando nuestras empresas (…) que al final supone pérdidas de centros de decisión, pérdidas de recaudación (…) y al final va a redundar en una pérdida del bienestar" (E10)*

Izan ere, erabaki zentroen lekualdatzeak, bertoko enpresen gaineko kontrola galtzeaz gain, bertan sortutako aberastasunaren drainatze efektu bat eragingo du, kapitala errazago lekualdatu daitekeen heinean eta desinbertsio arriskua handituz euskal eskualdeetan.

> *"Decimos que en las empresas capitalistas (…) es fácil que el inversor capitalista una vez que recibe sus ingresos, pues lo pueda destinar a donde más le sea rentable. El empresario que hemos mencionado de Elgoibar, por ejemplo, de 100 millones de euros de beneficio de este ejercicio, a lo mejor no lo ve rentable continuar invirtiendo allí en Elgoibar, y dice: mira en la costa de la Azahara en Valencia, pues hay unos pisos unos inmuebles fantásticos y estamos en un proceso de 'Boom' del sector inmobiliario, bueno pues esos 100 millones me los voy a invertir allí donde voy a ganar mucho dinero. ¿Verdad que es totalmente legítimo? Totalmente legítimo, y acabo de generar dos cosas: Uno, no acabo de reinvertir en mi territorio, que sería la zona de Elgoibar, y además lo que he hecho es un efecto vacuas. Es decir, un efecto de drenaje de capital de un territorio para llevármelo a otro. Acabo de deslocalizar no producción sino capital a otro territorio. Esto es poco menos que inconcebible en las cooperativas o en las entidades de Economía Social." (E13)*

Aldiz, ESSko antolakundeen kasuan, sortutako aberastasuna lurraldean atxikitzeaz gain, horren banaketa berdinzaleagoan eragiten dute. Hau da, alde batetik, desinbertsio mehatxuen aurrean lurraldean berrinbertitzen da sortutako aberastasuna. Eta bestetik, soberakinak banatzerakoan, parametro demokratikoei jarraika egiten da.

> *"La cooperativa obtiene sus beneficios, y lo primero que hace (…) vincular esos beneficios que obtiene a la reinversión en el propio medio de producción. Ampliando la planta, etcétera, con la finalidad de que sus puestos de trabajo, su actividad económica se quede más anclada y mejor desarrollada dentro del territorio. Es decir, se produce un proceso acumulativo y un proceso de retroalimentación dentro del territorio." (E13)*

> *"Una empresa de Economía Social contribuye a que no haya una persona que se enriquezca y el resto sobrevivan. Somos modelos de empresas donde hay una redistribución de la riqueza" (E10)*

> *"Unas características pues más justas, más redistributivas, más equitativas, más igualitarias y de mayor cohesión social ¿no? Las características principales de la Economía Social." (E12)*

Era berean, bere jarduera produktiboetan tokiko hornitzaileak lehenetsi ohi dituzte eta jarduera osagarriak sortzen dituzte lurraldean. Modu honetan, tokiko ekonomiaren dinamizatzaile garrantzitsuak bihurtzen dira.

> *"Tienden a auto-reproducir y a ampliar más lo que es la capacidad productiva vinculada a actividad principal y a las actividades anexas que tiene la empresa de producción en su correspondiente territorio." (E13)*

> *"Generalmente somos empresas que intentamos contribuir al crecimiento paralelo del entorno en el que vivimos, que se hace con mucha contratación local. Vamos en ese sentido, el nivel de enraizamiento es total y absoluto." (E10)*

3.3 ESSa eta lurralde gobernantza sistema

Lurraldearen ekonomiari egiten dizkion ekarpenez gain, ESSak lurraldearen garapen estrategiari eta, zehatzago, garapen estrategia horren gobernantza sistemari egin diezaiokeen ekarpenei ere erreparatu diete elkarrizketatuek. Orokorrean ESSa lurralde gobernantza sisteman barneratzeak horren demokratizazioa eragin dezakeela uste dute elkarrizketatuek. Jarduera ekonomikoaren errotzearen inguruan bezala, alde batetik, ESSko antolakundeen ezaugarri juridiko-formalek ahalbidetzen dute gobernantza parte-hartzaileago bat. Eta bestetik, ESSko antolakundeen helburu zein ezaugarri nagusiei begiratzen zaie. Zentzu honetan, kooperatibak eta ESSko beste antolakundeak parte-hartzerako eskola bezala ikusten dira, bertan ikasitako balioak lurraldearen beste egituretara zabaldu daitekeelarik.

> *"Bueno yo lo que diría es que las empresas de Economía Social sí que tienen ese papel democrático en el que y se va desarrollando una cultura participativa por parte de todos los trabajadores ¿no? Y eso sí que crea de alguna forma una forma de hacer y de ser ¿no? Entonces es una buena escuela donde desarrollar otro tipo de valores que se han aprendido o que se están desarrollando a nivel laboral (…) y se puede extrapolar a otro tipo de actividades o de acciones." (E12)*

Izan ere, ESSko antolakundeetan ez dago lurralde batetik abantaila ekonomikoak soilik bilatzen duen inbertitzaile kapitalistarik, baizik eta lurraldean bizi eta lan egiten duten bazkide kooperatibistak. Bazkide kooperatibisten egunerokotasunaren erreferentziazko espazioak diren heinean, logikoa da espazio bizigarriagoak eraiki nahi izatea. ESSko egitura berritzaileagoenek (adibidez, herri-kooperatibak edo bazkide-langileak eta bazkide-erabiltzaileak uztartzen dituzten kooperatibak) kudeaketa eta jabetza kolektiboko eredu irekia dute (langileak, kontsumitzaileak, erabiltzaileak, boluntarioak, familiak, udalak edo jardueran inplikatutako beste interes-talde batzuk). Hau da, ko-eraikitako erakundeak dira komunitateko eragile ezberdinei irekitako gobernantza-eredua dutelako, eta beraz, ESSa lurralde gobernantza sisteman barneratzerakoan, eragile hauek guztiak barneratzen dira ere. Gainera, garapen estrategietan eragiteko berariazko borondatea erakusten duten egitasmoak dira.

> *"Uste dut Ekonomia Sozialeko entitateak beraien izaera juridikoagatik eta beraien legediagatik, bakarrik horregatik, eta orokorrean ere bai beraien filosofiagatik, garapen endogenoko estrategia baten sustapenean aktiboagoak izan ahal direla. Eta gure kasuan eskualde honetan hori nabarmen ikusten da, ez? Eraldaketa nodoko enpresekin edo Beterri Saretuz-en parte-hartzen duten enpresekin kasuko, ez?" (E3)*

> *"Olatukoop-en dagoen kooperatiba bakoitzak izan behar du bere territorioan tokiko ekonomietako estrategietako eragilea. (…) Zergatik? Ekonomia Sozial Eraldatzaileko kidea delako, eta gauzak eraldatu nahi ditugulako, ez? Estrategiak baldintzatu nahi ditugulako eta zentralitate bat lortzen joan nahi dugulako. (…) pixkanaka pixkanaka geroz eta influentzia handiagoarekin tokiko garapeneko estrategietan." (E9)*

Hala ere, elkarrizketatuek diotenez, zaila da ESSak lurralde gobernantza sisteman izan beharko lukeen paperari buruz hitz egitea, lurralde edo eskualde konkretuen errealitatea ezagutu gabe. Izan ere, ESSaren baitan barneratu ditzakegun antolakundeen aniztasun handia izateaz gain, eskualdeak ere oso ezberdinak izan daitezke euren artean eta gobernantza eredu ezberdinak aurrera eraman ditzakete. Horregatik jarraian aztertuko dugun eztabaida ez da eskualde guztietan modu berdinean garatu, eta beraz, praktikan ezberdintasun handiak sumatu daitezke eskualde batetik bestera. Honen isla dira ESSaren izaera estrategikoaren pertzepzioaren inguruan dauden iritzi ezberdinak eta pertzepzio horiek politika konkretuetan txertatzeko askotariko moduak.

Garapen agentziak dira EAEko eskualdeen garapenaren gobernantza artikulatzeko ardura duten eragile instituzional garrantzitsuena. Hauen ardura da eskualdearen garapen sozioekonomikoan eragiten duten eragile ezberdinak inplikatzea eta artikulatzea (Estensoro eta Zurbano, 2010). Eta beraz, garapen agentzia bakoitzak duen ESSarekiko pertzepzioaren arabera, ESSak pisu estrategiko handiagoa edo txikiagoa izango du garapen estrategian.

Zentzu honetan, orokorrean bi ikuspegi nagusi gailentzen dira: Alde batetik, ESSa, bestelako enpresekin batera, tokiko ehun produktiboaren parte bezala kontsideratzen dutenak leudeke. Aurretik aipatutako onurak aitortzen dizkioten arren, ez dute enpresa kapitalisten eta ESSaren arteko ezberdintasunik egiten lurraldearen gobernantza ekonomikoaren kudeaketari dagokionez. Are gehiago, kasu batzuetan ESSa gutxietsita dago, lurraldean errealitate kuantitatibo adierazgarria ez suposatzeagatik.

> *"Niretzako hor galdera da: Zerk egiten du eragile bat, eragile estrategikoa izatea? ESSa izateagatik nahikoa da? Nahiko zalantzak ditut. Niretzako eragile estrategikoa da, baldin eta tokiko ekonomian pisu erlatibo handia daukan heinean" (E6).*

Eta beste aldetik, ESSak eskaini ahal dituen onuretan oinarrituta, lurraldeen gobernantza sozioekonomikoan paper protagonista, edo behintzat, zentralagoa, aitortzen dizkiotenak leudeke.

> *"Conseguir que la Economía Social y Solidaria sea una política pública que impulse esta economía como una opción preferente para el desarrollo económico territorial (…) trasladarla, visibilizarla y llevarla al territorio" (E4).*

ESSak eskualdearen arabera hartzen duen estrategikotasun maila desberdin honek baditu ondorio ezberdinak ESSaren inguruko politikak aplikatzerakoan. Orokorrean ESSa zeharka aplikatu daitekeen politika publikoa bezala ulertzen da, ESSa garapen agentziaren lan ildo guztietara aplikagarria dela adieraziz. Hau da, ESSa arazo ezberdinei eta tokiko garapenaren behar ezberdinei erantzuna emateko baliagarria den tresna bezala ulertzen dute. Enpresa arloan, enplegu arloan, etxebizitza arloan, zerbitzu sozialen arloan, kultura arloan, ingurumen arloan etab. zeresana duten antolakundeak bezala ikusten dituztelako.

> *"Eskualde honetan teknikoki antolatu izan gara hiru arlo nagusietan. Alde batetik, enpresa arloa eta sektore estrategikoak izango zirenak, beste aldetik ekintzailetza, eta hirugarrenik enplegua. Orduan saiatu garena izan da nolabait lan esparru guztietan Ekonomia Soziala ardatz edo euskarri moduan hartzen." (E3)*

Hala ere, kasu gehienetan garapen agentziaren egunerokotasuna ez doa norabide honetan, garapen agentzia batzuk ez baitute ESSaren inguruko lanketarik egiten (Arrillaga, 2021b). Eta lanketaren bat egiten dutenen artean inplikazio maila ezberdinak aurkitu ditzakegu. Kasu batzuetan, ESSaren aldeko politika publiko isolatuak burutzen dituzten garapen agentziak daude. Politika publiko isolatuak izateko arrazoi nagusienak bi dira: alde batetik, tokiko eragileekin aurrez adostutako plan estrategikoan ESSak tokirik ez duela, eta bestetik, aipatu bezala, ESSak tokiko ehun ekonomikoan duen pisu txikia.

> *"Gure atzetikan eskualdeko 18 udaletxeak daude eta normalean gure plangintza edo gure kudeaketa plana, zein lan lerro jarraitu behar ditugun… plan estrategiko batek finkatzen ditu. Bai dela egia plan estrategiko hori elkarlanean egindako estrategia bat dela (…). Orduan, uste dut tokia dela horrelako zerbait planteatzeko, baina beti ere beste eragile horiek horrela ikusten baldin badute" (E1)*

Bestalde, ESSa modu adierazgarriago batean sustatzen duten garapen agentzien artean, ESSa gobernantza ereduan barneratzeko moduaren inguruan iritzi ezberdinak aurkitu daitezke ere. Batetik, batzuk ESSa garapen agentziaren lan ildo gisa kontsideratzen dutenak daude. Eta beraz, ESSa sustatzea helburua duten politika publiko sektorialak aurrera eramaten dituzte. Eta bestetik, ESSa garapen agentziaren lan ildo ezberdinetan zeharka aplikatzen dutenak leudeke. Hau da, lan ildo ezberdinak jorratzeko orduan ESSa aukera preferente gisa aurkezten da.

> *Niretzat argi eta garbi izan behar dela transbertsala. (…) Nik uste dut Ekonomia Soziala ez dela helburua bere horretan, sino que dela bitarteko bat, ez? Eta horregatik, egin behar dena da garapen agentzien esparru ezberdinetan hau transbertsalizatu, ez?" (E3)*

Esan bezala, elkarrizketatuen iritziz, azken hau da agertokirik desiragarriena, baina bistan da ez dela gaur egungo egoera orokorra (Arrillaga, 2021b). Are gehiago, elkarrizketatu batzuek ESSa zeharka landu beharreko eragile gisa kontsideratzeko orduan kontu handiz ibili behar direla aitortzen dute. Izan ere, zeharka lantzerakoan, ez zaio aurrekontu konkreturik esleitzen eta, eguneroko praktikan, ikusgaitasun handiagoa duen ohiko ekonomiaren aldeko autua ematen da, batez ere, garapen agentzian ESSan trebatutako pertsonalik ez badago.

> *"Porque muchas veces lo transversal, que en concepto está muy bien, desaparece cuando vienen cosas urgentes. Y casi siempre hay algo urgente. (…) Entonces lo que es interesante es visualizarlo y ponerle nombre, ponerle un responsable y ponerle presupuesto para que tenga consistencia. Luego ya veremos que aplicaciones se pueden dar en función de la localidad, en función de quien lidera eso y en función de la respuesta del territorio, ¿no?" (E5)*

Horregatik, ESSaren inguruko lan ildo espezifikoen alde egiten dute, behintzat ESSa eskualdean indar askorik ez duen bitartean. Hau da, garapen agentzien beste lan ildoen artean, ESSa sustatzea helburu espezifikoa duen beste lan ildo bat sortzearen alde agertzen dira. Izan ere, ESSaren inguruko lan ildo bereiztu batek, lagungarria izan daiteke ESSarentzako baliabide, pertsonal eta plangintza konkretuak esleitzeaz gain, lurraldean ikusgaitasuna handitzen eta indartzen joateko. Beraz, batez ere ESSak hedapen txikia duen lurraldeetan ezartzeko, aukera interesgarriagoa izan daiteke lan ildo bereiztu bat sortzea.

> *"Son medidas que se van hilando poco a poco para generar algo que en el futuro tenga*
>
> *peso, tenga fortaleza, se consolide… Somos partidarios de pequeños programas que luego se vayan convirtiendo en un gran programa consolidado" (A4)*

4. EMAITZEN EZTABAIDA: LORTUTAKO EMAITZAK LURRALDEEN EKONOMIA POLITIKOAN KOKATZEN.

ESSa pixkanaka barneratzen hasi da EAEko eskualdeetako ekonomietan. Prozesu motela eta eskualde batetik bestera iragazkortasun maila ezberdina izan arren, etorkizunean euskal ekonomiaren erronka sozioekonomikoei erantzuteko eragile garrantzitsua izan daitekeela dirudi (Arrillaga et. al., 2023). Alabaina, dagoeneko ematen hasi den prozesu hau ez da eztabaidatik salbuetsita egongo. Izan ere, ESSak proposatzen duen eraldaketa emateko, egonkortuta dauden egitura ugari auzitan jartzea dakar.

Orain arte lortutako emaitzak lurraldeen ekonomia politikoaren eztabaidan kokatu nahi badira, gutxienez, hurrengo ezaugarriak kontuan hartu beharko lirateke: lurraldean dauden ekoizpen-baliabideen jabego egitura; aberastasunaren sorkuntzak eta banaketak sortzen dituen gatazkak; metaketa dinamikak lurraldean sortzen dituen eragin sozio-espazialak; garapen sozioekonomikoa azaltzen duten erregulazio eraikuntza eta instituzionalak;

lurraldea gobernatzeko mekanismoak eta politika publikoen eraikuntza; eta parte-hartzea eta botere harremanak. Eta emaitzek erakusten digutenez ESSak lurraldeen ezaugarri hauen gainean eragitea bilatzen du.

4.1 Ekoizpena, lana, aberastasunaren atxikipena eta banaketa:

Lehiakortasun globalaren testuinguruan, ETEek aurreko metaketa zikloan errotu duten jarduera ekonomikoa suntsitzeko mehatxua handia da. Batez ere, maila globalean kapitalaren kontzentrazioak enpresen erabaki zentroen ihesa ekar dezakelako. Eta zentzu honetan, euskal ekonomia bereziki ahul agertzen ari da azkenaldian; mota honetako enpresen (ETE industrialak, enpresa familiarrak etab.) gainean eraiki baitu hamarkadaz bere oinarri industrialaren zati esanguratsu bat. Gainera, hauetako askok pairatzen ari duten errelebo faltagatik, enpresak ixtera edo atzerriko enpresa edo funtsei saltzera behartuak ikusi dira.

> *"Como son empresas que, en general, lo hacen bien, porque tienen algunos elementos que aportan mucho valor a su competitividad, somos muy atractivas para las grandes empresas que están creciendo a través de la compra de empresas en otros países. Y en Euskadi, (…) somos un caladero interesantísimo para un montón de grandes empresas para comprar empresas y abrir sus tentáculos.(…) a corto plazo, si hay unas ciertas cláusulas de blindaje del empleo y tal, pero en el momento que quieren cogen la producción y se la llevan a otro sitio y hay una descentralización. (…)" (E10)*

ESSa joera honi aurre egiteko tresna izan daiteke jarduera ekonomikoa lurraldearekin formalki lotzeko duen gaitasunari esker. Ekoizpen bitartekoak sozializatzerakoan, hots, lana kooperatibiztatzerakoan edo enpresak langileek berreskuratzerakoan, errelebo kolektiboa gauzatzen da eta bazkide-langileen bizi-espektatiba eta bizitokiarekin lotzen du jarduera ekonomikoa. Hots, jarduera ekonomikoa sozialki eta espazialki errotzen da. Aldi berean, langileen kontrolpeko jabego egitura kolektibo horrek sortutako aberastasuna lurraldean atxikitzeko eta modu berdinzaleago batean banatzeko gaitasun formala erakusten du; azken hau erakundean egindako lanaren arabera demokratikoki banatzen delako langileen artean.

Ildoari jarraituz, egungo metaketa zikloak sortu dituen lan bereziki prekarizatuak (sektorialki: zaintza lanak, ostalaritza eta turismoa, *rider*-ak, banakuntza enpresak eta plataforma-kapitalismoari lotutako beste enpleguak etab. Eta egiturazkoak (Harvey, 1989): behin-behineko lanak, lanaldi partzialak, esternalizazio, pribatizazio eta azpikontratazioak etab.) kooperatibizatzeko eta lanaren burujabetzaren bidean lan horiek duintzeko tresna izan daiteke ESSa.

> *"Testuinguru globalak prekarizatzen dituen lanak berreskuratu, kooperatibizatu, dignifikatu eta gero horiek saretu (…). Turbokapitalismo aktualak sortzen ari dituen eremu prekario horietan kooperatibismoa antolaketarako eta dignifikaziorako tresna bezala proposatzen. Eta geroz eta interes handiagoa dago horrelako prozesuetan." (E9)*

> *"Yo creo que la Economía Social da respuesta a muchos de los problemas que tenemos en estos momentos. Lo primero el empleo. Es un modelo de generación de empleo, y no cualquier empleo, empleo de calidad y estable. (…) Creo que hacemos una apuesta por la diversidad."(E10)*

Izan ere, ESSa zerbait bada, eraldaketarako tresna kutxa bat da. Eta beraz lan esparru eta modu ezberdinetara egokitu daitezkeen forma ezberdinak garatzeko gai izan daiteke. Izan ere, historiari erreparatuko bagenio, ESSaren emergentzia eta re-emergentzia etengabe gertatu dela diote Moulaert eta Aileneik (2005). Hau da, krisien aurrean, gizarteak ESSarengana jo du bere beharrizanak ase ahal izateko (lan- edo kontsumo-elkartuaren bitartez, aurrezki edo etxebizitza kolektiboaren bitartez, laneko arriskuen aurkako funtsa mutualen bitartez etab.).

Garapen kapitalistaren azken fase honetan, desjabetzearen bidezko metaketaren (Harvey, 2014) bitartez kapitalak errentagarritasun tasak mantentzeko artikulatutako prozesuak nagusitu dira: Soldatapeko lana estutu; merkatu-desarauketak; pribatizazioen bitartez merkatu berriak ireki; kapitalaren zirkuitu sekundarioaren hedapenaz (finantzarizazioa-espekulazioa) baliatu da metaketarako aukera berriak sortzeko; komunitateak beren lurretatik eta etxeetatik kanporatu; militarizazioa eta gerraren aldeko apustua egin du baliabideen kontrolerako etab. Bestalde, merkatu akatsei erantzuteko estatuari egokituriko funtzioak (ongizate estatua, politika ekonomiko antiziklikoak, etab.) modu disfuntzionalean garatzen dira, interes ekonomiko oligopolistikoa interes orokorraren gainetik gailendu delako. Testuinguru honetan, komunitate antolatuaren jabego eta kudeaketa egitura berriei euskarri juridikoa eta antolaketa eredu bat eskaintzen die ESSak (Etxezarreta eta Bengoetxea, 2022).

Nozio berri honen baitan, ESSko eragileen protagonismo berritu baterako aukerak zabaltzen dira parez pare. Ikuspegi honen arabera, tokiko garapena bizitza sostengatzen duten jarduera produktibo zein erreproduktiboak indartzera bideratu beharko litzateke, baina ez edozein moduz: jarduera horietan herritarrek protagonismoa eta erabakimena eskuratzea litzateke paradigma honen funtsa. Beste hitzez esanda: bizitzaren erreprodukziorako beharrezkoak diren jarduerak modu auto-eratu, kolektibo eta komunitarioan kudeatzea litzateke iparra, beharrizanak bizi dituzten komunitate eta pertsonak beharrizan horiek asetzeko ahaldunduz, egitasmo horien jabe eginez (Etxezarreta eta Morandeira, 2020).

Aurrekoagatik guztiagatik, aberastasunaren atxikipenaz ari garenean, ez gara bakarrik aberastasun materialaz ari, baizik eta praktika sozial parte-hartzaile eta balio kontra-hegemonikoen erreprodukzioaz ari gara. Izan ere, ESSaren balio eta printzipioek ekoizpen modu post-kapitalista baten hastapenak gidatu dezakete, ESSa herritartasun eskola aktiboa delako, eta komunitatea sortzen duelako, aldaketa sozialerako indarrak metatzen lagundu dezakeelako. Eta azkenik, ESSko erakundeek laborategi gisa funtzionatzen dutelako, testuinguru garaikideak sorrarazi dituen problematika berriei erantzuna emateko: hala nola enpresa demokratikoen dimentsio egokiak, enpresen birmoldaketa ekologikoa, edo gobernantza demokratikoentzako berrikuntza sozialak etab. (Laville eta García-Jané, 2009:173-175)

4.2 Lurralde gobernantza, ESSa eta botere-harremanak:

Arestian esan bezala, lurraldea ez da espazio neutral bat, eta beraz, lurralde-ekonomia indartzeak ez du nahitaez esan nahi kapitalismo globalaren eragin negatiboak gaindituko direnik. Hots, erronka hauei erantzuteko ez da nahikoa tokikoaren aldeko apustuarekin. Moulaert eta Sekiak (2001) esaten duten moduan, estatu-eskalan oinarria duen ikuspegi espazial batetik ikuspegi lokala duen batera aldatzeak, zurruna eta eskala handikoa izatetik malgua eta eskala txikikoa izatera aldatzeak, edo goitik beherako politikak aplikatzen dituen gobernu sistema batetik gobernantza sistema horizontalago batera igarotzeak ez ditu kapitalismo globalaren eraginak gainditzen. Aitzitik, metaketa eredu zurrun batetik, eredu malgu batera igarotzeko kapitalaren estrategia bat da. Hots, kapitalismoaren berregituraketa bat, besterik ez. Izan ere, eskala ezberdinak, estatuz azpikoak barne, kapital-metaketa prozesuek une jakin batean koherentzia aurkitzen duten eremu geografikoak dira, bertan kokatzen diren eragile nagusien arteko adostasuna aurkitzen baitute kapitalaren proiektua gauzatzeko (Gonzalez, 2000). Beste modu batera, eskala, kapitalaren erreprodukzioa errazteko historikoki eta geografikoki eraikitako gizarte-eraikuntza (eta, beraz, botere-eraikuntza) da (Smith, 2008).

Tokiko eskaletan ezartzen diren erregulazio formak beraz, botere-harreman (global eta lokal) horien emaitza espezifikoak dira. Ohikoa da zentzu honetan, gobernantza eredu berriek eragile ekonomiko pribatu-kapitalistei lehentasuna ematea komunitatetik abiatutako egitasmoen aurretik; botere harreman dispareak erreproduzitzen jarraitzen direla bermatuz (Martínez et. al., 2019). Are gehiago, Subirats et. al.-ek (2009) esaten duten moduan, askotan eragile kritiko edo eraldatzaileagoen partaidetza oztopatu edo ukatzen da eraginkortasun arrazoiak argudiatuta. Egoera hau elkarrizketetan ere antzeman izan da, eta soilik ESSarentzat onuragarriagoak diren esparru arautzaile eta instituzionalak eraikitzea posiblea izan den eskualde gutxi batzuetan indarrez eta jarraikortasunez barneratu ahal izan da ESSa gobernantza sisteman:

> *“Si me dijeses, ¿participáis en espacios donde realmente se articulan esas propuestas económicas, donde se articulan esas nuevas formas de entender la economía…? Pues te diría que yo creo que no. (…). Yo la pregunta que me haría es si existe algún sistema de gobernanza territorial abierto, democrático y plural en este país… yo mi respuesta sería que no.” (E8)*

> *“Ezagutza… zer den Ekonomia Sozial Eraldatzailea geroz eta gehiago daukate. Baina gero eguneroko praktika maila oso txikia da, eszepzioak kenduta… direla niretzat Beterri Buruntza eta Lea Artibai”(E9).*

Dagoeneko argi geratu da ESSan eta bere balioetan oinarritutako tokiko garapen eredu batek gaitasuna izan dezakeela Moulaert eta Nussbaumerrek (2005) dioten “merkatuko ontologiari” jarraitzen dioten tokiko garapenaren eredua gainditzeko. Hala ere, garapenerako eragileak artikulatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen diren agente instituzionalak, garapen

agentziak, lan administratiboa egitera bideratutako administrazio publikoaren hanka dira kasu gehienetan, eta eragiteko agentzia duten kasu gutxietan aipatutako dogma neoliberalak jarraitu dituzte nagusiki. Oso gutxi dira, lurralde lehiakortasunaren ikuspegia gainditu eta lurralde bizigarriagoak sortzeko bide irmoa hartu duten garapen agentziak. Askotan, ezjakintasunagatik biderik errazena hartzeko joera erakusten dute, eta biderik errazena, nola ez, bide hegemoniko-kapitalista da.

> *"Gaur egun garapen agentziak oso estankoak dira. Egiten dute normalean beraiek egiteko gai diren proiektuak, baina ez badira gai ez dute sartzen beste bat hori egitera. Kataluniako ereduan Ekonomia Sozial Eraldatzaileko eragileak dira proiektuak aurrera eramaten dituztenak garapen agentzien laguntzarekin. Hori hemen ez da egiten. Ez dago kulturarik tokiko beste eragileekin proiektuak egiteko orokorrean" (E9)*

> *"La Economía Social no es un departamento estanco; es una sensibilidad, es una forma de entender la forma de hacer empresa. Y que creo que es importante que, dentro de una agencia, todas y cada una de las personas tengan conocimiento y tengan formación en lo que es la Economía Social. Porque las oportunidades para la Economía Social pueden surgir en el ámbito del medio ambiente, en el ámbito del emprendimiento, en el ámbito de la digitalización, o en el tema de competitividad empresarial. Pueden surgir en cualquier ámbito. No se trata de que haya una persona que sepa de Economía Social, porque no le van a llegar ni la mitad de las oportunidades, se trata de que todas y cada una de las personas conozcan y están sensibles a la Economía Social para que tengan esa capacidad de identificar oportunidades. Oportunidades que luego puedan ser derivadas a las familias de la Economía Social para poder ser puestas en marcha" (E10)*

Jarraitutako industria eta hiri politikek, garapen eredu desorekatu bat suposatu dute. Enpresak erakartzeko edo lurraldean kokatuta dauden enpresa handiak indartzeko industria politikak disparekotasunak sortzen ditu beste eragile ekonomikoekiko eta, funtsean, enpresa kapitalistaren eredua indartu eta finkatzen du, nahiz eta aurreko atalean ikusi den moduan, ESSak enpresa kapitalistek eskaintzen ez duten aparteko onura gehiago sortzen dituen lurraldeetako ekonomietan.

> *"Enpresa traktoreen eredua arrakala soziala handitzen du. Ez da demokratikoa (…) ari zarelako laguntzen eragile bakar bat (…) beste guztien iritzia jaso gabe." (E9)*

> *"Vamos a instalar aquí al lado un Ikea, ¿no? Y, por lo tanto, ¿qué ofrece ese ayuntamiento? Yo te exonero del impuesto del IBI, te aplano el terreno, y no hace falta que pagues ni el asfaltado ni la iluminación porque quiero que vengas aquí, que así crearas puestos de trabajo, ¿no? Es decir, hay un tipo de desarrollo local que está mirando hacia afuera siempre buscando 'oportunidades' de nuevos negocios y que por tanto no salen de las capacidades y de las necesidades de la propia población local, ¿no?" (E14).*

Hiri politikak ere, hiriak nazioartean inbertsioak eta bisitariak erakartzeko lehia globalean aritu behar diren ikuspegi enpresalista hartu du. Barnera, kualifikazio txikiko eta prekarietate maila handiko enpleguak sortzeaz gain, hirien inguruan dauden landa- edo industria-lurraldeak eraldatu ditu eta hirien espezializazioaren zerbitzura dagoen langile masaren bizitoki bihurtu ditu.

> *"Hemen Gipuzkoan San Sebastian Region eredua bultzatu delako izugarri (…) turismoan eta espezializazio handiko lanei lotutako eredu bat bultzatu da Donostiarako. Eta horrek afektatu du asko inguruko eskualdeetako garapen estrategietan. Adibidez, Oarsoaldeako garapen estrategia erabat dependientea da Donostiaren espezializazio horrekiko. Orduan Donostiak espezializatu nahi badu turismoan, Oarsoaldea zer izango da? Ba izango da Donostiak behar dituen turismoko langileen bizitokia. (…) Eta hori injustoa izateaz gain, lurralde ikuspegitik oso desorekatua da, azkenean espezializazio horren arabera aberastasun edo lan kualifikatu edo errenta altueneko lanbideak Donostian sortzen dira eta espezializazio gabeko edo errenta baxuko lanpostuak inguruan, ez? (…) hori da sustatu dena, enplegagarritasunera eta enplegu tasak murriztera bideratutako tokiko garapen politikak, baina ez benetan lurralde horretan bizitzeko eta lan duinak izateko gaitasuna handitzeko estrategiak" (E9).*

Garapen agentziei eragiten dien beste eztabaida nagusia, 3.3 atalean azaldutako zeharkakoktasunari dagokio. Badirudi, hasieran behintzat, egokiagoa izan daitekeela lan ildo propio bat garatzea ESSa sustatzeko. Behintzat honek lurralde mailan erreferentzialtasun maila esanguratsua lortu arte. Ondoren, elkarrizketatu guztien iritzia da ESSa zeharka landu beharko litzatekeela. Hala ere, ESSa zeharka lantzeak, beste arazo bat dakar gure ustez. Gaur egungo tokiko garapen ereduek garapenaren ikuspegi neoliberal bati jarraitzen diote orokorrean; merkatuan guztiz zentratuak eta arrazionaltasun kapitalistaren pean. Hortaz, garapen agentziek dituzten lan ildoak ikuspegi honi erantzuna emateko sortuak izan dira. Horregatik, eraldaketa sozioekonomikoa helburu duen eredu batek, lan ildo hauek zeharkatu baino, tokiko garapena birpentsatzea eskatzen du. Adibide gisa, aldez aurretik ezarritako lan ildoa lehiakortasuna sustatzea izanik, zer egin beharko luke ESSak? Lan ildo hori zeharkatu? Edo, demagun, inkerkooperazioa deritzon beste lan ildo bat sortu?

5. ONDORIOAK

ESSak bere lekua egiten ari du euskal ekonomian. Bereziki nabaria da hau tokiko eskaletan (udal eta eskualde mailan), non bere potentzialtasun osoa zabaldu dezakeen. Jarduera ekonomikoa errotzeko, kalitatezko lana sortzeko eta aberastasuna birbanatzeko duen gaitasuna agerikoa da, komunitatearen behar materialak asetzera bideratutako produktu eta zerbitzuen ekoizpenaren bitartez. Aldi berean, tokiko gobernantza sistemetan parte-hartzeko hautua egin du ESSak. Bere ingurunea eraldatu eta lurralde bizigarriagoak sortzea baitu erronka gisa.

Artikulu honetan, ESSaren lurralde dimentsioan sakondu dugu eta tokiko eremuen garapen

sozioekonomikorako eragin ditzakeen onurak aztertuak izan dira. Are gehiago, EAEko tokiko garapeneko eta ESSko 14 eragile eta aditu elkarrizketatu izan dira haien iritzi eta ikuspegiak ezagutzeko.

Hurrengo taulan laburbiltzen den moduan, orokorrean, ESSko egitasmoen ezaugarri juridiko-formalak zein helburu sozialak dira aparteko onura horien elementu azaltzaileak. Alde batetik, ezaugarri formalek ekoizpen bitartekoen sozializazioan sakontzen dute. Ekoizpenaren gaineko jabegoa eta kontrola eta mozkinen gaineko banaketa langileen erabakiaren esku gelditzen baita. Modu honetan jarduera ekonomikoa lurraldearekin formalki lotzen da. Eta beste aldetik, egitasmoaren helburu sozialei helburu ekonomikoen gainetik lehentasuna ematerakoan, merkatuan errentagarritasun handirik ez duten baina baliagarritasun sozial handia izan dezaketen produktu eta zerbitzuak ekoiztea ahalbidetzen die. Egitasmoaren helburu sozialari alderdi ekonomikoen gainetik lehentasuna ematerakoan, merkatuko truke-balioa produktu eta zerbitzuen erabilera-balioarekiko azpiratzen du.

Taula 1: ESSaren ezaugarri formalek eta finalistek sortzen dituzten onurak jarduera ekonomikoaren errotzearekiko eta gobernantza sistemaren demokratizazioarekiko

	Ezaugarri formalak	Egitasmoaren helburua
Jarduera ekonomikoaren errotzea	Lurraldean bizi diren langile-bazkideen jabego egitura kolektiboak jarduera ekonomikoa errotu, kalitatezko lana sortu eta aberastasuna birbanatzen du. Enpleguaren defentsa handiagoa ematen da langileek euren lanaren jabe direlako.	Tokiko beharrizan materialak asetzera bideratuta. Bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako enplegu duina eskaintzen du ESSak.
Gobernantza sistemaren demokratizazioa	ESSko egitasmoen gobernantza ireki eta demokratikoa, lurraldean parte-hartzerako eskola ere bada.	ESSko egitasmoek euren ingurunean eragin nahi dute, eraldaketa sozioekonomikoa gauzatzeko eta lurralde bizigarriak eraikitzeko.

Iturria: Egileek egina

Alabaina, ESSk tokiko garapen sozioekonomikoari eragin diezaiokeen inguruko iritziak positiboak izan arren, lurraldeetan benetan existitzen den ekonomia politikoaren markoan kokatzea ezinbestekoa da garapen eredu alternatibo baten proposamenak sortzen dituen gatazka eta errezeloak ezagutzeko. Zentzu honetan ondorioztatu dezakegu gobernantza egiturak ez direla beti aldarrikatzen diren bezain parte-hartzaileak, edo, ez behintzat eraldaketa sozioekonomikoa ipar duten eragile kritikoetarako. ESSak gobernantza sistemetan parte-hartzea gatazkak sortu ditzake, metaketa kapitalista erraztu eta ahalbidetzeko egituratu diren lurralde egiturak eraldatzea eskatzen baitu, ekoizpen bitartekoak sozializatuz eta bizitzaren erreprodukzioaren zerbitzura jarriz.

Eztabaida honen emaitza da, neurri handi batean, ESSa eskualdeen garapenerako eragile estrategikotzat edo ez estrategikotzat hartzeko hautua. Eta beraz, baita ere honek dakarren

inplikazio praktikoak: ESSan oinarritutako tokiko politika publikoak aurrera eramatea edo ez egitea. Ikusi dugunez, aldeko marko erregulatzailea eta egitura instituzionalak garatzen direnean ESSa zabaltzeko aukerak biderkatzen dira.

Horrenbestez, gure ustez, kontua ez da ESSak zer nolako pisu espezifikoa duen eskualde batean edo bestean, baizik eta kualitatiboki zer eskaintzeko gai den. Hots, ESSak ez luke tokiko gobernantza sistemetan bere estrategikotasuna irabazi behar lurralde batean duen pisuaren arabera (ezinezkoa litzateke enpresa kapitalistaren hegemonia birproduzitzen duten garapen ereduetan), baizik eta artikuluan zehar aipatu diren ekoizpen moduaren onurak lurraldean hedatuz.

Bukatzeko, etorkizunerako ikerketa ildoetan pentsatuz, etorkizun hurbilean euskal ekonomiak aurre egin beharko dituen beste bi erronka kontsideratu eta lurraldeen ekonomia politikoaren eztabaidan kokatzea komenigarria litzateke: erronka demografikoa eta zaintzaren ekonomia alde batetik, eta bestetik klima aldaketa eta trantsizio eko-sozialak. Izan ere, testuinguru honetan, ahots ezberdinek sektore hauen “aukeren” inguruan hitz egiten hasi dira. Hala ere, aukera hauek esploratzera bideratuta dauden ohiko bideek lurraldeen egoera gehiago tenkatzearen arrisku handia dakartzate. Merkatuko ikuspegi kapitalista batetik, “aukera” kapital metaketa ahalbidetzeko merkatu nitxo berri baten aurkikuntzarekin lotzen da. Zaintzak ezinbestekoak dira bizitza duinak erreproduzitzeko, eta beraz, horregatik, lurraldearen ekonomia politikoaren ikuspuntutik horiek bermatu eta duintzeko bitartekoak garatzea litzateke erronka nagusia lurralde oreka mantenduz. Bestalde, maila materialean afera ez da nolanahikoa. Baliabide naturalen neurrigabeko ustiapenak, lehengai askoren agorpena ekarri(ko) du. Urritasun materialari lotzen zaio, gainera, kudeaketa krisia: gutxiago egongo da banatzeko eta garai bateko birbanaketa estatu-mekanismoak agortuta daude. Erronka, zentzu honetan, des-hazkunde materiala onartzen duten sistema demokratiko eta sozialki eta espazialki bidezkoak eraikitzea litzateke.

6. BIBLIOGRAFIA:

AMIN, A. & THRIFT, N. (1994): *Globalization, institutions, and regional development in Europe*, Oxford: Oxford University Press.

ARRILLAGA, P. (2021a): “La propuesta del desarrollo local transformador. Aportaciones desde la Economía Social y Solidaria”, *Hegoa Lan Koadernoak*, 88: 1-64.

ARRILLAGA, P. (2021b): *Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako tokiko garapena: Esukal Autonomia Erkidegoaren kasu azterketa*, Doctoral dissertation, University of the Basque Country (UPV/EHU).

ARRILLAGA, P., & ETXEZARRETA, E. (2022): “Mercados sociales e intercooperación en la Economía Social y Solidaria como vía para recuperar soberanías: el caso del Mercado Social de Euskadi”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (105), 263-288.

ARRILLAGA, P., ETXEZARRETA, E., & BENGOETXEA, A. (2023): "Ekonomia Sozial eta Solidarioaren txertaketa EAEko eskualdeetako garapen-estrategietan: Ikuspegi orokor bat." *EKONOMIAZ. Revista vasca de Economía*, 104(02), 226-253.

BENGOETXEA, A. (2016): "Enplegua euskal Gizarte Ekonomian 2009-2013 artean" In Bretos, I. & Pérez De Uralde, J.M (eds.): *Euskal Gizarte Ekonomia eta Krisialdi Ekonomikoa. 2009 eta 2013 arteko bilakaera sozioekonomikoa*, OVES/GEEB Observatorio Vasco de Economía Social /Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia. Donostia

BENKO, G. & LIPIETZ, A. (eds.) (2000): La richesse des régions: la nouvelle géographie socio-économique, Presses Universitaires Françaises, Paris.

BOSCHMA, R., & FRENKEN, K. (2009): "Some notes on institutions in evolutionary economic geography", Economic geography, 85(2), 151-158. https://doi.org/10.1111/j.1944-8287.2009.01018.x

BOSCHMA, R., & FRENKEN, K. (2018). "Evolutionary economic geography", In Clark, G., Feldman, M., Gertler, M. & Wójvik, D. (Eds.): *The new Oxford handbook of economic geography*, 213-229.

BRENNER, N. (1999a): "Beyond state-centrism? Space, territoriality, and geographical scale in globalization studies", *Theory and Society* 28: 39-78.

BRENNER, N. (1999b): "Globalisation as reterritorialisation: the re-scaling of urban governance in the European Union", *Urban studies*, 36, 431-451. https://doi.org/10.1080/0042098993466

BRENNER, N. (2004): *New State Spaces Urban Governance and the Rescaling of Statehood*, Oxford University Press.

BRETOS, I., & MARCUELLO, C. (2017): "Revisiting globalization challenges and opportunities in the development of cooperatives". *Annals of Public and Cooperative Economics*, 88(1), 47-73.

BRETOS, I. & MORANDEIRA, J. (2016): "La economía social ante la actual crisis económica en la Comunidad Autónoma del País Vasco", *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, (122), 7-33.

BIRCHALL, J., & KETILSON, L. H. (2009): *Resilience of the cooperative business model in times of crisis*, International Labour Organisation.

DICKEN, P. (2011): *Global Shift Mapping the Changing Contours of the World Economy*, Guilford Press, 6th edition.

ESTENSORO, M. & ZURBANO, M. (2010): "Innovación social en la gobernanza territorial: Innobasque y las redes comarcales de la Comunidad Autónoma de Euskadi", Ekonomiaz Revista vasca de Economía, 74(2), 131-159.

ETXEZARRETA, E. & MORANDEIRA, J. (2020): “Ekonomia Sozial Eraldatzailea eta tokiko garapen eraldatzailea sustatzeko gida: Lurralde burujabe eta bizigarriak eta udalgintza eraldatzailea”, Koopfabrika argitalpenak. Hemen eskuragarri: https://meta.koopfabrika.eus/s/9x2w2rTC8JekSxm

ETXEZARRETA, E. & BENGOETXEA, A. (2022): “Herri Kooperatibak: helduleku teorikoak eta bideragarritasun juridikoa Euskal Herrian”, Koopfabrika argitalpenak. Hemen eskuragarri: https://meta.koopfabrika.eus/s/tyFmsxZz86WLEct

FAKHFAKH, F., PÉROTIN, V., & GAGO, M. (2012): “Productivity, capital, and labor in labor-managed and conventional firms: An investigation on French data” *ILR Review*, 65(4), 847-879.

GÓMEZ, J.M. & FERNÁNDEZ, J. (2008): “La economía social en el desarrollo económico regional un análisis del subsector de mercado en Castilla y León”, *Estudios de Economía Aplicada*, 26(1), 253-274.

GONZÁLEZ, S. (2005): “La geografía escalar del capitalismo actual”, *PEGADA-A Revista da Geografia do Trabalho,* 6 (1), 91-112.

GUI, B. (1991): “The economic rationale for the ‘Third Sector’”, *Annals of public and cooperative economics*, 62(4), 551-572.

GURIDI, L., & PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2014): *La dimensión económica del desarrollo humano local: la economía social solidaria*, University of the Basque Country (UPV/EHU), Hegoa Institute, Bilbao.

HARVEY, D. (1989a): *The condition of postmodernity. An Enquiry into the Origins of Cultural Change*, Oxford: Blackwell.

ICA, International Co-operative Alliance (1995): The statement on the co-operative identity, International Co-operative Alliance. http://www.gdrc.org/icm/coop-principles.html

JUSTE, J.J. GÓMEZ, J. M. & FERNÁNDEZ, J.. (2011): “Economía social y desarrollo local/rural. Un análisis de sus sinergias”, *Estudios de Economía Aplicada*, 29(1), 189-221

LASA, E. & ETXEZARRETA, E. (2020): “Ekonomia sozialaren analisia lurralde ikuspegitik: euskal herrian,espainian, frantzian zein europan”, *Lurralde: investigación y espacio* 43, 283-301

LAVILLE, J.L., & GARCÍA-JANÉ, J. (2009): *Crisis capitalista y economía solidaria. Una economía que emerge como alternativa real*, Icaria, Barcelona.

LAVILLE, J. L., Y NYSSENS, M. (2000): “Solidarity-Based Third Sector Organizations en the `Proximity Services´ Field: A European Francophone Perspective”. *Voluntas: International Journal of Voluntary and Nonprofit Organizations*, 11(1): 67-84.

LEE, N. (2011): "Are innovative regions more unequal? Evidence from Europe", *Environment and Planning C: Government and Policy*, 29(1), 2–23. https://doi.org/https://doi.org/10.1068/c1046r

LEE, N., & RODRÍGUEZ-POSE, A. (2013): "Innovation and spatial inequality in Europe and USA", *Journal of Economic Geography*, 13(1), 1–22. https://doi.org/https://doi.org/10.1093/jeg/lbs022

LONGHURST, R. (2003): "Semi-structured inter-views and focus groups", *Key methods in geo-graphy*, 3 (2): 143-156.

MACLEOD, G. (2001): "Beyond soft institutionalism: accumulation, regulation, and their geographical fixes", *Environment and planning,* 33(7), 1145-1167. https://doi.org/10.1068/a32194

MARTIN, R. & SUNLEY, P. (2006): "Path dependence and regional economic evolution", *Journal of economic geography*, 6(4), 395-437. https://doi.org/10.1093/jeg/lbl012

MATEI, A., & DOROBANTU, A. D. (2015). "Social economy–added value for local development and social cohesion". *Procedia Economics and Finance*, 26, 490-494. https://doi.org/10.1016/S2212-5671(15)00878-3

MONZÓN, J.L. (2006): "Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector", *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (56). 9-24.

Monzón, J.L. & Chaves R. (2012): *La economía social en la Unión Europea*, Comité Económico y Social Europeo. Berreskuratuta: https://www.eesc.europa.eu/resources/docs/qe-30-12-790-es-c.pdf

MOULAERT, F. & NUSSBAUMER, J. (2005): "The social region: beyond the territorial dynamics of the learning economy", *European urban and regional studies*, 12(1), 45-64.

MOULAERT, F. & SEKIA, F. (2001): "¿Región innovadora, región social?: una perspectiva alternativa sobre la innovación regional", In URANGA, M.G. and OLAZARAN, M. (eds): *Sistemas regionales de innovación*, Servicio de Publicaciones UPV/EHU, 185-219.

MOULAERT, F. & SEKIA, F. (2003): "Territorial innovation models a critical survey", *Regional studies*, 37(3), 289-302. https://doi.org/10.1080/0034340032000065442

MOZAS, A. & BERNAL, E. (2006): "Desarrollo territorial y economía social", *CIRIEC-España, Revista de economía pública, social y cooperativa*, (55), 125-140.

PIKE, A., RODRÍGUEZ-POSE, A. & TOMANEY, J. (2016): *Local and Regional Development*, Second Edition. London: Routledge.

PIKE, A., RODRÍGUEZ-POSE, A., & TOMANEY, J. (2017): "Shifting horizons in local and regional development", *Regional studies*, 51(1), 46-57. https://doi.org/10.1080/00343404.2016.1158802

RODRÍGUEZ-POSE, A. (2013): “Do institutions matter for regional development?”, *Regional studies*, 47(7), 1034-1047. https://doi.org/10.1080/00343404.2012.748978

SMITH, N. (2008): *Uneven development: Nature, capital, and the production of space*, University of Georgia Press.

VALIENTE, L. (2019): “¿Podría estar contribuyendo el cooperativismo a fijar la población en el territorio de Andalucía?”, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 97, 49-74. https://doi.org/10.7203/CIRIEC-E.97.13046

VÁZQUEZ-BARQUERO, A. (2000): “Desarrollo endógeno y globalización”, *EURE (Santiago),* 26(79), 47-65.

VÁZQUEZ-BARQUERO, A. (2009): “Desarrollo local, una estrategia para tiempos de crisis”, *Revista Apuntes del CENES*, 28(47), 117-132.

VILLALBA-EGUILUZ, U., EGIA-OLAIZOLA, A., & PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C. (2020): “Convergences between the social and solidarity economy and sustainable development goals: Case study in the Basque country”, *Sustainability*, 12(13), 5435. https://doi.org/10.3390/su12135435

ZURBANO, M. (2005): “Las regiones como sujetos de la economía global. Euskadi en la gobernanza multidimensional”, *Ekonomiaz Revista vasca de economía*, (58), 196-231.